

LAN-KOADERNOA

B_{2.1}

ARIAN

EUSKARA IKASTEKO METODOA

ERANTZUNEKIN

ARIAN ARIAN ARIAN ARIAN ARIAN ARIAN

ARIAN

elkar

ARIAN

B_{2.1}

EUROPAKO
ERREFERENTZIA
MARKOA

Unitate bakoitzak **lau atal** ditu, eta, bukatzeko, autoebaluazioa:

PASADIZOAK

TESTUAK ANTOLATZEN	PERPAUSAK JOSTEN	HITZAK DANTZAN	BEGIA ZORROTZ
DENBORA ARDATZ (12. or.) • Denbora-antolatzaileak: bat-batean, berehala, orduan, handik ordu betera... • Pasadizoaren egitura: gertaera kokatu, nondik-norakoak deskribatu, amaiera kontatu, ondorioa azaldu. KONTAKIZUNETAN ERREFERENTZIAK NOLA EGIN (14. or.) • Pronominalizazioa: Josuk..., berari... • Ordezkapen lexikala: - sinonimoak eta baliokideak: gerra-garaian..., orduan; aitonak..., gizonak... • Determinazioa: nerabezaroan..., orduan,...	GERTAERAK NOIZ GERTATU DIREN NOLA ADIERAZI (15. or.) • Denborazko perpausak: -elarik, -t(z)erako, -(e)nerako • Hainbat denborazko perpaus nahasgarri: -t(z)erakoan, -t(z)ean, -takoan/-dakoan, -(e)ne(ra)ko BESTEAK DIOTENA NOLA ADIERAZI (17. or.) • Konpletiboa: -(e)la • Zehar galdera: (ea)... -(e)n • Zehar agintera: -t(z)eko • Zehar galdera aditz jokatu gabeekin: ez daki zer egin, badaki nori deitu... • Esapideak: auskalo non dabilen, batek daki non dagoen... • Zertan galdetzailea duten esapideak: ez genuen zertan joan, ez zenuen zertan etorri...	EKINTZAK NOLA ADIERAZI (20. or.) • Aditzak: hots egin, tupust egin, irten, ipini, heldu, egin, sartu, gelditu, atera... INFORMAZIO OSAGARRIA NOLA ADIERAZI (21. or.) • Adberbioak: kolpeka, sutsuki, eserita, kezkatuta/rik... HAINBAT ESAMOLDE ERABILGARRI (21. or.) • Esamoldeak: poliki-poliki, dinbi-danba... • Ez ikusiarena egin: tontoarena egin... ZIURTASUN EZA NOLA ADIERAZI (22. or.) • edo juntagailua INFORMAZIOA NOLA INDARTU (22. or.) • gero partikula HAINBAT ELEMENTUREN ELIPSIA NOLA EGIN (22. or.) • eta juntagailua HAINBAT HOTS NOLA ADIERAZI (23. or.) • Onomatopeiak: txio-txio!, krak!, taup-taup!, plisti-plasta!, kar-kar!...	HITZAK KATEATZEN (24. or.) • Hainbat deklinabide kasu: nor, nork, nori, noiz, nondik, nongo... • Norengan, norengana, norengandik, norenean, norenera, norenetik kasuak: amarengan irakaslearengana, medikuarenera... • Noiztik/nondik nora kasuak: handik bost egunera, harritik hamar kilometrora... BAKOITZARI BEREK (26. or.) • Indikatiboa, orainaldia: nor, nor-nori, nor-nork, nor-nori-nork • Aditz trinkoak, lehenaldia: eramán, ekarri, jakin, egon, ibili... HITZEKIN JOLASEAN (28. or.) • Ortografia: s, z, x, ts, tz, tx, h • Hainbat aditz eta hitz nahasgarri: eskaini, jaitsi, iaz, zehar...

AUTOEBALUAZIOA (29. or.)

- **Denbora-antolatzaileak:** gerra ostean, azkenean...
- **Pasadizoaren egitura:** gertaera kokatu, nondik-norakoak deskribatu, amaiera kontatu, ondorioa azaldu.
- **Erreferentziak nola egin, sinonimoak edo baliokideak erabiliz:** aitonak..., gizonak...
- **Denborazko perpausak:** bezain laster, aurretik, -(e)nerako, ostean...
- **Aditzen sinonimoak:** otu, bururatu, igaro, pasatu...
- **Adberbioen sinonimoak:** astiro-astiro, poliki-poliki, urduriz, kezkatu...
- **Deklinabidea:** nor, nork, nori, noren...
- **Aditz laguntzaileak eta trinkoak lehenaldian:** ginen, nengoen...
- **Ortografia:** z, s, x, ts, tz, tx, h

01 PASADIZOAK

Unitate honetan, gertaerak, pasadizoak edo anekdotak kontatzeko hainbat jarduera egingo dituzu honako atal hauetan:

→ Testuak antolatzen

- › Pasadizoak eta anekdotak kontatzen ditugunean, gehienetan, modu berean *egituratzen* ditugu: **gertaera kokatu, gertaeraren nondik-norakoak deskribatu, gertaeraren amaiera azaldu eta atera daitezkeen ondorioak adierazi.**
- › Atal horiek guztiak denboraren arabera antolatzen ditugu: **atzo, egun batean, bostak aldera, iluntzean...**
- › Bestalde, askotan, gertaeraren haria ondo jarraitzeko, kontaketa aipatutako garaiari, pertsonari edota ekintzari *erreferentzia* egiten diegu, eta horretarako, hitz bera ez errepikatzen saiatzen gara: **nerabezaroan, orduan...**
- › Atal honetan, eginkizun horiek guztiak egiteko hainbat *hizkuntza-baliabide* landuko dituzu.

→ Perpausak josten

- › Gertaerak kontatzen ditugunean, aipatzen ditugun *ekintzak* denboran kokatzeko zein *ordenatan* gertatzen diren adierazten dugu: **aurretik, ondoren, igo ginenean...**
- › Era berean, ohikoa da pasadizoaren protagonistek edo *ingurukoek diotena* kontatzea: **berandu zela esan zion, nora joan nahi zuen galdetu zion, ez sartzeko esan zidaten...**
- › Atal honetan, horiek guztiak adierazteko *egitura* batzuk aztertuko dituzu.

→ Hitzak dantzan

- › Gertaerak *ekintzez* betetako kontaketa izaten dira: **joan zen, hartu zuen, esan zion, galdetu zuen...**
- › Gainera, ekintza horien inguruko beste informazio asko ere ematen dugu: **nekatuta, poliki-poliki, zehatz-mehatz.**
- › Eta ez hori bakarrik; askotan, kontaketa bizitasuna emateko, hainbat *esapide* eta *esamolde* erabiltzen ditugu: **ezikusiaarena egin zuen, plisti-plasta, krak!...**
- › Atal honetan, horiek azaltzeko hainbat forma ikusiko dituzu.

→ Begia zorrotz

- › Zuzentasuna helburu duen atal honetan, pasadizoak eta gertaerak kontatzen diren testuak oinarri hartuta, *deklina-bidea*, *aditz laguntzaileak* eta *ortografia* landuko dituzu.



HITZAK KATEATZEN

Deklinabidearen bidez perpaus barruko hitzak lotzen dira. Ego-ki erabiltzeak testu ulergarriak egiten lagunduko digu.

- 1 Irakurri eta osatu testua, eta aukeratu falta diren hitzen *deklinabide-kasu* egokia.

(1) *Gaztetan*, mendi-irteera asko egiten genituen. Ondo moldatzen ginen mendian, baina ez geneukan esperientzia handirik; garai (2) __, (3) __ ginen. Behin, susto handia izan genuen (4) __; gau osoa mendian galduta pasatu genuen.

Igande (5) __, bost lagun abiatu ginen Nafarroa (6) __. Mendi magalera iritsitakoan, igotzen hasi ginen. Pentsatu bezala, eguerdiko ordu (7) __ iritsi ginen (8) __; oso pozik geunden, baina nekatuta ere bai. Hamaiketako egin ostean, jaisten hasi ginen, eta, bat-batean, lainoa sartu zen. Jaisten jarraitu genuen, baina gero eta gutxiago ikusten genuen, eta larritzen hasi ginen. Ordurako, ez genituen (9) __ ikusten, eta jarraitzea oso arriskutsua izan zitekeela pentsatu genuen. Hala ere, batzuek (10) __ egin nahi zuten, baina laster konturatu ziren ezinezkoa zela, beraz, gaua bertan igarotzea erabaki genuen.

Erabat ilundu (11) __, lotarako prestatu ginen. Mendian, (12) __, tenperatura asko jaisten da, eta guk ez generaman arropa egokirik. Janari pixka bat bageneukan, fruitu lehorrak eta txokolate apur bat, baina gutxi zen.

Oso gau gogorra izan zen; euria egin zuen, hotz handia izan genuen, eta ia gau osoa esna eman genuen. (13) __ goiz, jaisteko markak bilatzen hasi ginen. Oso poliki genbiltzan, indarrrik gabe geunden eta. Guk ez genekien, baina erreskate-taldea gure bila zebilen, gure familiakoek deitu zioten eta.

Halako batean, ahots batzuk entzun genituen. Erreskate-taldekoak ziren, eta guregana zetozen. Berehala eman ziguten kafea eta jatekoa, eta, indarberritu bezain laster, jaisten hasi ginen; zazpi ordu behar izan genituen jaisteko, baina ondo iritsi ginen.

(14) __ familiakoak zeuden gure zain, eta poz handia hartu zuen (15) __ ikusi gintuztenean.

- | | | | |
|---|---|---|---|
| 1. a. Gaztetatik
b. <i>Gaztetan</i>
c. Gaztetako | 5. a. goizean
b. goizetik
c. goizeko | 9. a. markak
b. marka
c. markek | 13. a. goizetik
b. goizez
c. goizean |
| 2. a. hartatik
b. hartara
c. hartan | 6. a. aldetik
b. aldean
c. aldera | 10. a. aurrean
b. aurretik
c. aurrera | 14. a. Aterpetxetik
b. Aterpetxean
c. Aterpetxera |
| 3. a. gazteak
b. gazteek
c. gaztea | 7. a. bietatik
b. bietako
c. bietarako | 11. a. aurretik
b. aurrera
c. aurrean | 15. a. guri
b. guk
c. gu |
| 4. a. Pirinioetako
b. Pirinioetan
c. Pirinioetara | 8. a. gailurrera
b. gailurrean
c. gailurretik | 12. a. gauean
b. gauetik
c. gauera | |

2 Osatu hiru lagunek kontatu dituzten pasadizoak hitz egokia azpimarratuz.

“Behin batean, (1) udalekuetan/udalekutan, gelako neska batzuei (2) lo-zakuetan/lo-zakutan zomorroak sartu genizkien. (3) Gauetan/Gauean, lo-zakuetan sartu zirenean, garrasika hasi ziren, eta guk barre asko egin genuen. Hurrengo egunean, (4) begiraleek/begiralek zigorra jarri ziguten, eta udalekua bukatu arte, (5) igerilekutara/igerilekura joan gabe gelditu ginen. Zigorra kentzeko erregutu genien (6) begiraleari/begiraleei, baina alferrik izan zen”.

“Anaiak eta (7) biok/biek Ingalaterran pasatu genuen gerra-garaia. Nik lau urte nituen eta anaiak zortzi. Umea nintzen, baina ez zait ahaztuko egun hura: ama (8) portuan/portutan negarrez, guri begira. Hasieran, oso gogorra izan zen, beste hiz-

kuntza bat, beste ohitura batzuk..., baina azkar ohitu ginen. Beharko! Gerra bukatu eta (9) handik/hartatik hamar (10) urtera/urteetara itzuli nintzen izebaren etxera. Ordurako, (11) gurasoak/gurasook hilik zeuden; (12) gerran/gerratan hil ziren biak. Anaia, ordea, ez zen itzuli; han gelditu zen. Hainbat (13) urtetan/urteetan aritu zen hango zenbait (14) tabernatan/tabernetan lanean, eta bueltatu nahi izan zuenerako, beranduegi zen: hiru (15) seme-alabak/seme-alaba zituen, eta (16) hirurak/hirurek zeuden eskola-garaian. Emaztea ere oso gustura bizi zen (17) bertan/hartan, eta, nahiz eta (18) txikietatik/txikitatik Hernanira bueltatuko zela esan, ez zen inoiz (19) herrira/herrietara itzuli”.



AMARENGANDIK IKASI ZUEN

Norengan, norengana eta norengandik kasuak, non, nora eta nondik kasuen baliokideak dira, baina bizidunekin erabiltzen dira.

- Konfiantza handia daukat irakaslearengan.
- Irakaslearengana joan naiz zalantzak argitzera.
- Gurasoengandik jaso du eskiatzeko grina.

HANDIK BOST URTERA

Horrelako egituretan, nora kasua singularrean deklinatu ohi da.

- Handik lau egunera bueltatu zen etxera.
- Herritik lau kilometrora bizi da.

Unitate honetan, gertaerak, pasadizoak edo anekdotak kontatzeko erabilgarriak diren hainbat *hizkuntza-baliabide* landu ditugu. Prest al zaude aurrerapenak ebaluatzeko? Egin itzazu ariketa hauek. Aurrera!

Denbora-adierazleek gertaeraren egitura antolatzen laguntzen dutela ikusi dugu. Ea zer moduz moldatzen zaren gertaera hau ordenatzen!

- 1 Ordena ezazu gertaera hau, eta azpimarratu paragrafoak ordenatzen lagundu dizuten *denbora-antolatzaileak*. Ondoren, zerrenda itzazu.

Osaba Pako

Gerra-garaian, osaba errepublikanoekin borrokatu zen, baina, berehala erbesteratu behar izan zuen Iparraldera, eta ia frankismo-garai osoa Bidarten pasatu zuen. Ezin zen Hegoaldera bueltatu, baina herrira itzultzeko zuen grina gero eta handiagoa zen. Egun batean, zer egin zezaketen bururatu zitzaien: aita bisitan joatean, han geratuko zen pare bat egunez, eta, osaba etorriko zen haren orde. Txiki-txikitatik nahasten zituzten bikiak zirelakoan, eta ziur zeuden, orduan ere, horrela gertatuko zela; hortaz, eguna jarri eta pentsatutakoa egin zuten. Osabak aitaren pasaporte hartu zuen, jendarneak eta guardia zibilak engainatu eta muga pasatu zuen.

Azkenean, diktadorea hil baino urte batzuk lehenago itzuli zen osaba herrira, baina gelditzeko asmotan, eta abentura hari amaiera eman zioten bi anaiek.

Hogeita hamaseian, gerra hasi zenean, gazteak ziren biak; aita hemezortzi urte zituen eta osabak hamasei; oso ondo moldatzen ziren eta beti elkarrekin ibiltzen ziren. Fisikoki ere antz handia zuten: altuak, beltzaranak, bekain iletsukoak eta irribarre zabalekoak.

Gaueko zortziak aldera, kask-kask entzun genuen atean; ez genuen inor espero, eta amak atea ireki zuenean, zur eta lur gelditu zen. Nor izango eta koinatua! Ezin zuen sinetsi, baina segituan konturatu zen osabak eta aita zer egin zuten. Ama oso urduri zegoen, eta osabak lasaitu egin behar izan zuen. Amari kosta egin zitzaion egoera hura onartzea, baina, poliki-poliki, patxada berreskuratu zuenean, onartu egin zuen. Egun hartatik aurrera, ohikoa izan zen, noizean behin, osaba Pako gurean ikustea.

Gerra ostean, hainbat eta hainbat gertaera bizi izan zituzten gure xaharrek; etxeko gertaerarik onena osaba Pakok eta gure aita denbora luzean bizi izandako abentura izan zen.

1. Gerra ostean

2.
3.
4.
5.

